# 'Irati', del alavés Paul Urkijo, se estrena en Sitges como favorita

## El segundo largometraje del realizador alavés recibe en el festival el elogio de público y prensa

*Jose Oliva*

**SITGES** – El cineasta alavés Paul Urkijo presentó ayer *Irati*, que tuvo su estreno absoluto en la sección competitiva del Festival Internacional de Cine Fantástico de Catalunya y que con el elogio unánime de público y prensa ya figura entre las favoritas del certamen.

*Irati* sitúa su argumento en el siglo VIII, cuando el cristianismo se extiende por Europa al tiempo que las creencias paganas van desapareciendo. En este contexto, ante el avance del ejército de Carlomagno al atravesar los Pirineos, el líder del valle pide ayuda a una diosa ancestral vasca, Mari, y a través de un pacto de sangre, derrota al enemigo franco en la batalla de Roncesvalles dando su vida a cambio, pero antes hace prometer a su hijo Eneko (Eneko Sagardoy) que protegerá y liderará a su pueblo en la nueva era.

Años más tarde, Eneko afronta esa promesa con una misión: recuperar el cuerpo de su padre enterrado de forma pagana junto al tesoro de Carlomagno, pero pese a su fe cristiana recurre a la ayuda de Irati (Edurne Azkarate), una enigmática pagana de la zona. En esa búsqueda los dos jóvenes se adentrarán en un bello pero a la vez inquietante bosque donde "todo lo que tiene nombre existe".

En la presentación ante la prensa del festival, Urkijo explicó que "se trata de una historia muy local, muy arraigada, que parte de los cuentos de la mitología vasca que nos contaban de pequeños cuando íbamos al bosque pero que es totalmente exportable". Para afrontar este proyecto se ha documentado histórica o antropológicamente: "La diosa Mari es un vestigio de una cultura indoeuropea muy antigua que rendía culto a la naturaleza y en la mitología vasca hemos tenido suerte gracias a la orografía y al idioma a que se haya preservado ese vestigio".





En la imagen superior, el director alavés Paul Urkijo; a la izquierda, Eneko Sagardoy y Edurne Azkarate. *Fotos: Efe*

La película describe ese momento de ocaso del paganismo, que el director resume con la frase "Todo lo que tiene nombre existe", un lema que aplica al bosque que los lugareños quieren preservar, "un mundo que se ve alterado cuando llegan las grandes religiones o, como hoy, cuando llegan las grandes empresas y lo absorben todo".

Precisamente, añade Urkijo, "de los símbolos de la mitología se pueden extraer lecciones, y una de ellas es el respeto a la naturaleza, a los demás".

Otro de los desafíos de la película es la utilización de un euskera que pareciera antiguo: "Le hemos dado la sonoridad de un euskera del norte, al que le hemos dado una aspiración por la influencia del árabe y también le hemos aplicado la rima".

La naturaleza, con muchas localizaciones que Urkijo ya conocía desde pequeño, se convierte en un protagonista más de la película: "Toda se rodó con luz natural y en la oscuridad con fuego real, lo que le da un realismo y una textura a la cinta que es lo que también pide una historia mitológica".

Para su director, la película tiene "un factura de Hollywood", pero con esta producción se demuestra que "también podemos hacer proyectos de este tipo aquí, es cuestión de encontrar las localizaciones, mimarlas".

El equipo de *Irati* fue despedido con un sonoro y prolongado aplauso, que augura una carrera comercial de éxito a esta superproducción vasca. ●

# Jone Uria eta Aitor Bizkarra, zuzenean finalaurrekoetara

## ASTEBURUAN DONOSTIAN ETA LIZARRAN JOKATUTAKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIKO SAIOEK FINALAURREKOETARAKO SAILAKATU DIRENEN ZERRENDA ARGITU DUTE.

*Testua Miren Mindegia* · *Argazkia Utzitakoa*

Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaurrekoak argitu dira, asteburuan jokatutako lehenengo faseko azken saioen ondoren. Larunbatean Donostian eta atzo Lizarran ospatu ziren azken bi final-laurdenak: lehenengoan Jone Uriak eskuratu zuen garaipena eta bigarrenean Aitor Bizkarrak. Hala, bi hauek zuzeneko pasea eskuratu dute hurrengo faserako, eta bidenabar argitu da puntuazio bidez igaro diren bertsolarien zerrenda ere.

Larunbatean Donostiako Victoria Eugenia antzokia lepo bete zen txapelketako lehen faseko bosgarren saioa jarraitzeko. 888 bertsozale, denetara, Leire Garatxek gidatu zuen saioan. Eszenatoki gainean, sei bertsolari: Aitor Etxebarriazarraga Gabiola, Beñat Iguaran Amondarain, Onintza Enbeita Maguregi, Maddalen Arzallus Antia, Eñaut Martikorena Lizaso eta Jone Uria Albizuri.

Ariketa puntuagarri guztiak bukatu ondoren, Jone Uria izan zen puntu gehien bildu zituen bertsolaria, 706 hain zuzen. Haren atzetik geratu ziren Onintza Enbeita 688 punturekin, Aitor Etxebarriazarraga 682,5 punturekin, Maddalen Arzallus 678 punturekin, Eñaut Martikorena 674,5 punturekin eta Beñat Iguaran 659 punturekin.

Beraz, Irungo finalaurrekoan kantatuko du Jone Uriak azaroaren 5ean, Sustrai Colina, Nerea Ibarzabal eta puntuazioz sailkatu diren beste hiru bertsolariekin batera: Ane Labaka, Maddalen Arzallus eta Miren Artetxe.

Atzo, aldiz, Lizarrako Los Llanos kultur-gunean bildu ziren zaleak lehenengo faseko azken saioa jarraitzeko. 500 bertsozaletik gora aurrean, aretoa beteta zegoela kantatu zuten sei bertsolariek Amaiur Lujanbio Agirre gai-emaileak gidatutako saioan: Imanol Uria Albizuri, Asier Azpiroz Iztueta, Iñigo Mantzizidor Larrañaga *Mantxi*, Unai Gaztelumendi Arandia, Aitor Bizkarra Ruiz eta Maialen Akizu Bidegain.



Aitor Bizkarrak eskuratu zuen garaipena atzo, Lizarran.

Aitor Bizkarrak lortu zuen puntu gehien pilatzea: 693,5 puntu. Jarraian geratu ziren Asier Azpiroz (666 puntu), Maialen Akizu (658,5), Imanol Uria (652 puntu), Unai Gaztelumendi (630,5) eta Iñigo Mantzizidor *Mantxi* (622,5).

Beraz, Aitor Bizkarrak zuzenean lortu du finalaurrekoetarako txartela eta Durangoko finalaurrekoan kantatuko du azaroaren 12an. Bertan arituko da txapelketako aurreko edizioko finalista izan ziren Aitor Mendiluze eta Beñat Gaztelumendirekin, eta puntuazioz sailkatu diren Eñaut Martikorena, Julio Soto eta Saioa Alkaizarekin batera.

Finalaurrekoetarako sarrerak dagoeneko eskuratu daitezke *www.bertsosarrerak.eus* atarian. Halaber, saio bakoitzeko sarrerak saioak jokatuko diren egunetan ere jarriko dira salgai, txarteldegian, betiere aurretik agortzen ez badira. ●

### FINALAURREKOAK

- **Saioak irabazita sailkatu diren bertsolariak.** Alaia Martin Etxebeste, Joanes Illarregi Marzol, Nerea Ibarzabal Salegi, Haritz Mujika Lasa, Jone Uria Albizuri, Aitor Bizkarra Ruiz.
- **Puntuazioz sailkatu diren bertsolariak.** Oihana Iguaran Barandiaran, Nerea Elustondo Plazaola, Ane Labaka Mayoz, Julio Soto Ezkurdia, Onintza Enbeita Maguregi, Agin Laburu Rezola, Aitor Etxebarriazarraga Gabiola, Maddalen Arzallus Antia, Eñaut Martikorena Lizaso, Saioa Alkaiza Guallar, Miren Artetxe Sarasola, Asier Azpiroz Iztueta, Iñaki Apalategi Astigarraga.
- **Sailkatutako 19 bertsolariei duela lau urte finalista izandako bost bertsolari batuko zaizkie.** Aitor Mendiluze Gonzalez, Amets Arzallus Antia, Beñat Gaztelumendi Arandia, Sustrai Colina Acordarrementeria, Unai Agirre Goia.